

Ebazpena: R040/2023

Espedientea: 1/2018

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita SFC eta AGU jaunek 2012tik 2014ra bitartean SBASLk egindako lan pertsonalaren atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 1/2018 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

- 1.-** SBASL Gipuzkoan egoitza fiskala duen sozietate bat da, eta ibilgailuetarako haur-aulkiak diseinatzen, fabrikatzen eta merkaturatzen ditu.
- 2.-** Sozietateak GFARI ordaindu dizkio bere langile guztien lan-atxikipenak.

3.- ZAEAk 2016ko apirilaren 6an ekin zien SFC jaunari eta AGU jaunari 2012tik 2014ra egindako lan pertsonalaren atxikipenak ordainarazteko eskumena egiaztatzeko jarduketei.

Ikuskapenean egiaztatu zen aipatutako langileek lurralde erkidean soilik eman zituztela zerbitzuak.

4.- 2017ko maiatzaren 8an, ZAEAk GFari eskatu zion langile horien 2012-2014 urteetako lan pertsonalagatiko atxikipenen bidalketa.

5.- 2017ko irailaren 14an, GFAk preskribatutzat jo zuen administrazioarteko kreditu publikorako eskubidea, 2012. urteari eta 2013ko lehen hiruhilekoari zegokienez, eta 2013ko gainerako zatiari zegokionez, berriz, bidalketa onartu egin zuen. Alabaina, ez zuen eman 2014. urteari buruzko iritzirik.

6.- 2017ko azaroaren 9an, ZAEAk inhibizioa eskatu zion GFari.

7.- 2017ko abenduaren 7an, GFAk uko egin zion inhibizio-errekerimenduari, eta 2012. urtearekiko eta 2013ko lehen hiruhilekoarekiko preskripzioa berretsi zuen, gainerako aldiekiko inhibizio-errekerimendua epez kanpoko zela ulertuta.

8.- 2018ko urtarrilaren 4an, ZAEAk eskumen-gatazka planteatu zuen. 1/2018 espediente-zenbakia esleitu baitzion Arbitraje Batzordeak, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Administrazioarteko kreditu publikoaren eskubidearen preskripzioa, 2012ko eta 2013ko lehen hiruhilekoko atxikipenei dagokienez

Auzitegi Gorenak epai askotan adierazi du (besteak beste, 2015eko abenduaren 15ekoan —ECLI:ES:TS:2015:5337—, 2022ko otsailaren 10ekoan —ECLI:ES:TS:2022:596—, 2020ko abenduaren 3koan —ECLI:ES:TS:2020:4077—, 2021eko urtarrilaren 28koan —ECLI:ES:TS:2021:372— eta 2020ko maiatzaren 18koan —ECLI:ES:TS:2020:1010—) administrazioarteko kreditu publikoaren eskubidea

aurrekontu-izaera publikoko eskubidea dela, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-kreditu juridikoaren eskubideaz bestelakoa.

Administrazioarteko kreditu publikoko eskubidearen preskripzio-epea dirua bidegabe sartzen den unean hasten da, eta ez da etengo bere burua zergapekoaren (hirugarren pertsona bat administrazioarteko harreman juridikoan) eskuduntzat jotzen duen administrazioak jarraitzen duen zerga-prozeduran egiten diren egintzengatik.

Hori dela eta, preskribatuta dago ZAEAk kreditu publikorako duen eskubidea, alegia, zergapekoak 2012ko eta 2013ko lehen hiruhilekoko epean sartutako atxikipenak GFari erreklamatzekoa.

3.- Inhibizioa eskatzeko epea

1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.1 artikulua honako hau dio:

1. Gatazka onartzeko eskakizun moduan, beharrezko izango da, gatazka aurkeztu baino lehenago, bere burua eskuduntzat jotzen duen tributu-administrazioak eskugabe irizten dionaren inhibizioa eskatu izana, horrela bere eskumena erreklamatzuz, eta azken administrazio horrek errekerimendua errefusatu izana, eta bere eskumenean berrestea esanbidez nahiz isilbidez.

Aipatutako errekerimendu hori, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da, bere burua eskuduntzat jotzen duen administrazioak bere iritziz Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak urratzen duen egintza edo egintzak ezagutzen dituen datatik kontatzen hasita.

Hori horrela, administrazio-egintza batetik hasten da kontatzen 2 hilabeteko epea, ez jarduketa batetik, eta, beraz, baztertu egin behar da zergapekoaren jarduketak, behar ez bezala sartuta, *dies a quo* zenbatzea.

Bestalde, *beste* Administrazioaren egintza bat izan behar du, hau da, eskugabe irizten zaionarena. Beraz, baztertu egiten da epea ZAEAREN egintza baten ondorioz hastera.

Nolanahi ere, ZAEAREN Administrazio eskugabearen sartzeko txostena 2017ko martxoaren 23koa da, eta atxikipenen itzulketa edo bidalketa eskaera, berriz, 2017ko maiatzaren 8koa; hau da, ez ziren igaro 2 hilabete.

Azkenik, bidalketa ukatzeko GFAREN egintzatik (2017ko irailaren 14an jakinarazi zen) 2017ko azaroaren 9an jakinarazitako inhibizio-errekerimendura arte ere ez ziren igaro 2 hilabete, eta, beraz, epe barruan egin zen.

4.- SFC eta AGU jaunei egindako lan pertsonalaren atxikipenak

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak egiaztatu duenez, langile horiek 2012tik 2014ra bitartean lurralde erkidean bakarrik eman zituzten zerbitzuak, eta, beraz, atxikipenak Estatuari dagozkio, Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Preskribatutzat jotzea ZAEAREN administrazioarteko eskubide publikoa GFARI eskatzeko 2012ko eta 2013ko lehen hiruhilekoko lan pertsonalaren atxikipenak, zerbitzuak lurralde erkidean soilik eman zituzten SBASLko langileei dagokienez.

2.- Adieraztea GFAK ZAEARI bidali behar dizkiola langile horien lan pertsonalaren atxikipenak, hots, 2013ko gainerakoak eta 2014koak.

3.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta SBASLri jakinaraztea.